



## MUGIKORREN ERABILERA:

Guraso talde batek mugikorren erabileraren gainean egin duen gogoeta LHko gainontzeko gurasoekin partekatu nahi izan du.

Oro har, gure inguruan nahiko onartuta dago 12 urteren bueltan jasotzea gaztetxoek beren lehen mugikorra (kasu batzuetan, baita lehenago ere). Gaur aurkeztu duten gogoeta Ikastolako Guraso Eskolako kide diren zenbait gurasorengandik iritsi da. Gaiak eskatzen duen sakontasunaz jabetuta, adierazi dute gaur egun seme-alabei mugikorra emateko modua (lanketarik eta jarraipen handiegirik gabea, nahiko librea) eta adina (mugikorrek eskatzen duten heldutasun kognitibotik urruti) oso kezagarri zaiela eta gainera kasu askotan ez garela jabetzen mugikor horien arduradun legalak gurasoak garela.

Gauzak horrela, gogoeta hori Ikastolako gurasoen komunitatean zabaldu nahi dute, ikasleei mugikorra ematen zaien adina ahalik eta gehien atzeratzeko helburuarekin eta, ahal den neurrian, erabakiak taldean hartzea bultzatuz: gai honetan erabakigarria izaten baita, etxe askotan, semearen/alabaren lagunetatik zenbatak duten mugikorra une bakoitzean.

Gaiarekiko interesa dutenekin ekainean bilera labur bat egingo dute. Bitartean, eta informazio gehiago nahi duenarentzat, batetik aktarekin batera doakizue bilerarako prestatu duten aurkezpena eta, bestetik, beheko loturetan dituzue gaiari buruzko zenbait artikulua labur interesgarri, bileran jendearen eskura jarri zituztenak. Ekaineko bileran parte hartu nahi zenuketenok, nahi izanez gero, idatzi ikastolako guraso eta Guraso Taldeko dinamizatzaile den Miren Ros-i ([miren.bidelagun@gmail.com](mailto:miren.bidelagun@gmail.com)) gaiarekiko interesa duzuela adieraziz.

*-Mugikorra izateko gutxieneko adina: 16 urte*

<https://www.argia.eus/blogak/mikel-garcia/2019/02/03/mugikorra-izateko-gutxieneko-adina-16-urte/>

*-Mugikorra eskolan, zertarako?*

<https://www.argia.eus/blogak/mikel-garcia/2018/09/18/mugikorra-eskolan-zertarako/>

*-El consumo de pornografía en la red comienza a los 10 años*

<https://www.lavanguardia.com/lacontra/20190123/454268874154/el-consumo-de-pornografia-en-la-red-comienza-a-los-10-anos.html>

*-Adolescentes: la vida en el móvil*

<https://www.elmundo.es/yodona/lifestyle/2017/09/16/59b7bb58e5fdea855c8b45dd.html>

*-Compartir fotos eróticas es habitual entre adolescentes; no ven que la viralización les hace vulnerables*

<https://www.noticiasdenavarra.com/2019/04/06/sociedad/navarra/compartir-fotos-eroticas-es-habitual-entre-adolescentes-no-ven-que-la-viralizacion-les-hace-vulnerables>





SALBATORE MITXELENA IKASTOLA  
MARIA ETXE-TXIKI KALEA 14  
20800 ZARAUTZ



☎ 943831752 📠 943833690 ✉ zarautz@ikastola.eus [www.zarauzkoikastola.eus](http://www.zarauzkoikastola.eus)

